# PADDY REKALDE

## spray



# Spray

## Paddy Rekalde

poesia Susa

Liburu honen salneurria: 3,54 €.
Ordainketa egiteko, edo liburu gehiago eskuratzeko:
http://susa-literatura.com/ebook

© 2011 Paddy Rekalde
© edizio honena: Susa
cc-by-sa Creative Commons Aitortu Partekatu
http://creativecommons.org/licenses/by-sa/3.0/deed.eu

Lehen edizioa paperean: 2011ko apirila
Edizio hau: 2011ko ekaina

Susa: 317 posta kutxa / 20800 Zarautz
Adoain Aita 92 / 31015 Iruñea
Zubitalde 21 / 48195 Larrabetzu
Telefonoa: 943 83 26 55
Elektroposta: susalit@armiarma.com
Webgunea: http://susa-literatura.com

# MEMORIA GARA

memoria garela dio poetak, memoria hutsa,
inoiz ixten ez den halako oroitzapen bilduma bat
hezur-haragizko maniki baten barruan

bizitza, haizea lez, gure aurretik paseatzen da
leun, zakar, busti, lehor... batzuetan,
bero, hotz, mantso, zoro besteetan,
hegotik zein iparretik datorren jakin barik

laztandu edo jo egiten dizkigu ezpainak,
atzamarrak, lepoa, bularra edo begirada,
eta batzuetan, bat-bateko labankaden antzera,
bihotzeraino heltzen da, isilik, aldarrikatu barik

min hori, plazer hori, barru-barruan itsatsi
eta zer garen zehazten digun akordu meta da,
noiz, nori, zergatik eskainiko diogun besarkada,
musua, bostekoa, baita ukabilkada eta amorrua ere

memoria, bihotzaren iparrorratza

# 1

# ZELAN DISEKZIONATU MUSU LUZE BAT EZPAINETAN

literaturaren gaineko lizentziatura
eta haren inguruko bestelako ikastaroak
eginda dauzkan kritikari honek
amodiozko poema zoragarri hori hartu eta
musker berezi baten aurrean balego bezala
disekzionatu egiten du odol hotzean
itsasoak hondartzara ekarritako izurde hil bati
egingo lioketen autopsia bezain hotz
eta poema hori emozioa eta desioa bada ere
erloju zahar baten antzera ireki nahi du

bitartean
maitaleek
mihiak saman olgetan ari direla
elkarri
xuxurlatzen diote
poema hori

# ASPALDIKO LAGUNEI BISITA

Ganguren aldeko gandorretatik ibiltzea gustukoa du,
halakoetan ez du etxean ezer esaten
errieta egingo diotela badakielako.
“Sasi arteko bidezidor horiek ez dira
83 urteko agure batentzat”
errepikatzen diote behin eta berriro,
“inoiz labain egingo duzu, seko jausi
eta hilda topatuko zaituzte”.

Debekua dela-eta, bestelako aitzakiak bilatzen ditu
eta, autobusez heldu ostean, tipi-tapa abiatzen da gora
pinudiak baino gorago dagoen zabalgune batera,
sasien artetik erabat ahaztuta oraindik ikus daitezkeen
Burdinazko Gerrikoaren aztarnetara.

Gerra egunetako hormigoizko plataforma batean jesarri
eta inguru hondatuetara begiratzen du:

lurpeko pasabidera doan sarrera, metrailadore habiak,
tuneletako aireztatze zuloak...
eta harri handi eta zapala, goroldio orbanez josia,
egun ikaragarri haietan batzuetan euren bazkalekua zena.

Orduan akordura etortzen zaizkio lagunak,
gandor horietan bere ondoan azken hatsa eman zutenak,
eta zerua ezin urdinago badago ere
zirimiri antzekoa igartzen du begietan.

# FALLEN ANGELS

Porco Dio, Stéfano ha muerto
La Parca se ha llevado a Tamburini
*Nivel 30*

Parkarekin ibili ziren dantzan
gerritik tinko helduta,
punk-rocker gazte azeleratu haiek
bafleak lehertzen ziren egun ez hain urrunetan

Afrodita sutsuaz mozorrotutako Parkarekin,
gaueko azken dantza balitz bezala,
txortan etengabe, bizitzaren azken sex astindua
gauzatu beharko zuten maiteminduen antzera
plazerezko pantera zuri, eder eta hilgarri harekin.

Basquiat-en *Fallen Angel* hura etortzen zait gogora

larruazalean fokuek eragindako izerdia
zain ubel eta zulatuetatik zetorren egarriaz nahasia,
milaka watio, pogo basatia eta laztan kimikoak,
huraxe guztia koktel ikaragarria, lehergarria,

huraxe guztia gure kultura liburu ofizialetan sekula
agertuko ez diren nire Herriko punk-rocker haien
musu
desitxuratuetan
begirada
erotuetan.

*Reggae del vómito* haren akordeak
izan litezke akordu hauen soinu banda

azkenean, irteerarik gabeko autopista gozatu
ostean,
*Straight to Hell* clash song hura furgonetako
kasetean,
erroien puta ederrari ordaindu behar izan zioten
eta Erioski bidaiak betiko eraman zituen.

Neoizko argietara begiratu beharrik gabe
aldarrikatu nahi nuke
amodioa eta gorrotoa irudi berean batzen zirela,
su ikaragarria zegoela
momentuko agintarien ondoan irribarretsu jarri
barik,
argazki ofizialetarako modelo salduak bezala.

Nire bihotzeko irratiaren dialean
noizean behin bilatzen ditut
memoria erabat ugertu baino lehen

nondik gatozen jakiteak lagundu dezake-eta
nora goazen zalantza horretan

fallen angels, fallen angels!
erroien bazka bihurtuta...

# IRAIL URRUNEN OROITZAPENAK

Samatik pasatu nion dutxako ur epela
eta handik bizkarrera, gerrira eta izterretara,
berriro gora eta bular aldera bideratu nion,
handik isuri zen, bular aspaldi hustuetatik,
erreka otzan baten moduan, sabel aldera

berak esku ahurrez ura hartu
eta behin eta berriro
aurpegira eraman zuen,

gozo zegoela esan zidan niri begira,
eskertu egiten zuela freskura hori,
egun hartako sargoriak eragindako izerdiaz
libratzea

bainurako xaboiaz esponja busti ostean
astiro eta leun laztandu nion azala
eta horrela goitik behera luze egin ondoren
lepo bustian musukatu nuen,

berak begiak bildu eta eskua bilatzen zidan
bitartean
irail urrunen oroitzapen gozoak ekarriko zituen
akordura,
masusta helduak, txakolin freskoa
eta maitearen ezpainak...

dantzarako kanta zahar baten doinua hasi zuen
ahapetik

esponjaz laztandu eta berriro musukatu nuen
saman,
herioak eraman baino lehenago,
gure aita zenak egingo zion bezala.

# HIRI PHOTOSHOP

gainezka egiten duten kontainerrak
baita erreta dagoena ere

banku batean erdi lo datzan morroi etxegabea
ondoan daukan ondasun guztia: bi poltsa eta
txakurtxoa

California night club iragartzen duen neoizko
errotulua
putetxeari gauez argi urdinkara ematen diona

teilatuen gainetik ikus daitezkeen tximinia zaharrak
eta hauetatik sigi-saga zerurantz isurtzen den
kutsadura

presoei elkartasuna eskaintzen dien graffiti
koloretsua
askotan ezabatua baina behin eta berriro berregina

horiek guztiak desagerrarazi ditu udal diseinugileak
bisturi zorrotz zehatz bihurtua duen photoshopaz

eta orduan egoki eta zuzen eta
batez ere argitaragarri iritzi dio irudiari
hiri top model horren turismo webgunean jartzeko

interneten irudi anputatuaren aurrean balizko
bisitariei
hasperen luze-luzea aterako zaie aho zulotik

hiriko goi mailako ostalariei berriz
irribarre maltzurrez adurra

# LKJ GOGOAN

poesia emanaldi gehienetan
bildu egiten ditut begiak
eta gogora ekartzen dut
Linton Kwesi Johnson

batzuek pentsatuko dute
loak hartutako morroi bat naizela
agure baten antzekoa

baina nire erraietan
poesiarako sua eta erritmoa
eskatzen dituen
bele zoro bat dago

ostots baten zain

# 60 URTEKO GAUA

Galsoro bazterretik doa, makulu batez lagunduta,
adinak ez dio-eta nahi bezala ibiltzen uzten,
are gutxiago lur zokor horien artetik,
eta olibondo bakarti baten ondoan gelditu egin da.

Aurrera jarraitzeko esan die besteei, ez itxaroteko,
poltsikotik ateratako zapiaz sikatu du bekokia,
sargoriaren laztana berun hutsa da, itogarria,
eta hala ere ekialdetik igartzen du ekaitza,
soro horitu hauetara hurbiltzen ari den zeru ubela.

Holaxe gogoratzen du haurtzaroko gau hura,
sargoritsua, ubela, berunezkoa...
aita zelan sartzen zuten kamioi barrura,
fusilak, oihuak, motorraren zarata,
zelan hasi zen kamioiaren atzetik arineketan
gaur bezala bihotza lehertzear
gaur bezala arnasa ezin ailegatuz
kamioia urrunean galtzen zen bitartean
eta gau ilunean aita...

Olibondotik ehun bat metro egin ondoren
harri zapal batean eseri da
ordu batzuk lehenago egindako lubaki batean
ageri diren hezurrei begira,
izerdi tantak malko batzuekin
nahasi zaizkio ezpainen inguruan,
eta orduan, hezurrei begiratzen utzi gabe,
esan du: padre, qué noche más larga...

# INFERNUA

Antzokiaren aurrealdea eder egoki apainduta dago
Hiria ospatzen ari den Beldurrezko Zinemaldirako,
eta terrorea eta izua iradokitzen dituzten irudiei
begira
ilara batean sarrerak erosteko zain dago jendea

garrasi ilun eta urratuak adi daitezke noizbehinka,
Antzokiaren kanpo alde horretan jarritako
bafleetatik
sartzeko zain daudenen bihotzak dardaraz jarri
nahian,
eta, zinemaldirako aurreikusita ez bazegoen ere,
arrats ilun eta lainotsu honetan faroletako argiak
zeharo erakargarri suertatzen dira

eta une horretan, plano ezberdinetako filmetan
bezala,
hiri bereko beste eraikin ofizial eta uniformatu
batean
pistola baten kanoiak igurtzi egiten ditu, hotz eta
astiro,

eskuak atzean lotuta, begiak eta ahoa zintaz estalita
eta biluzik dagoen neska baten alu ezpainak

ahora vas a probar una buena polla durísima, putita,
aditzen du neskak inguru ikusezin horretatik,
malkoak eta oihuak batera nahasten zaizkion
bitartean,
una polla que nunca olvidarás

# McDAID’S

McDaid’s pub, guinnessa eta zigarro isiotu berria,
zurrutaden artean turisten irudiak zetozkidan
gogora,
*Ulysses* erosi berria poltsatik atera, bularrean
pausatu
eta argazki kamerari irribarretsu begira jartzen
ziren
Joycek Dublinen kokatutako pasarteen plaken
inguruan

“Ulysses Tour” gogoangarria Dublinen,
Stephen Dedalus, Leopold Bloom... eta zu zeu!
zigarroaren keak ezin hobeto adierazten zidan
turista irribarretsuen irudia:
mamuen atzetik dabiltzan ehiztariak

baina mamuen bila aritzea lan antzua izaten da,
denborak gupidagabe deuseztatzen du dena,
eta lekuen izenak besterik ez dira geratzen,

toponimia huts eta hotz baten antzera,
maite dituzun idazleen lan eder haietatik

alferrik bilatuko duzue Joyce Dublinen,
Pessoa Lisboan, Bukowski L.A.n, Hemingway
Parisen,
basamortuan ur jauzi bat topatzeko zori berbera,

zoazte Aresti biltzen zen La Concordia kafetegira
eta auzo lotsa eragingo dizuen bingo-kasino bat
agertuko da zuen begi literaturzaleen aurrean

idazle haiek hil egin ziren,
euren maitaleak, lagunak zein putak bezala,
eta eurekin batera,
halakoxea da bizitzaren patua,
liburuetan aipatzen zuten mapa sentimental guztia:
klub, taberna, hotel, errepide eta enparauak

zigarroaren kea astiro bota nuen ezpainen artetik
zeharkako begiradaz McDaid’s hartako bazter
batera,
Brendan Behan, zurrutadak lagun,
idaztera jesartzen zen orduko bazterrera,

keak Brendan Behanen irudia sortuko zuelakoan

eta berak, ahots etilikoaz,
nire barrenetik zera esan zidan:
baina oraindik sinesten duk mamuetan?

# FREE SELF SERVICE

a lot of people won’t get no supper tonight
a lot of people won’t get no justice tonight
*Armaggideon Time*

Urdaiazpiko egosia, magdalena paketeak, okela xerrak,
tomateak, laranjak, esne tetrabrikak, solomoa, batidoak,
donuts kajatxoak, sardinak, madariak, pizzarako orea...

Hori guztia eta gehiago eskuratu dute
halako *free self service* berri batez
supermerkatu ondoko kontainerretatik,
saiak ardi hilen inguruan bezala, hara bildu direnek.

Bertolt Brechten poema bat izan zitekeen
29ko Depresio Handiari buruzkoa,
New York Cityko auzune txiro batean kokatua,
baina ez, hiri honetako paisaia da, ordu jakinekoa.

Iraungipen data pasatua daukan janaria
sakabanatu egiten da miseriaren bazterretarantz
iluntzeko ordu isil eta iraingarri horretan,
zabor biltzaileen kamioiaren bisitaren aurretik,
eta zubipean, bankuko kutxazain edo elizako
aterpean
zabaldu eta banatu egingo da.

Beraz, nork esan du poesia sozialak
dagoeneko ez daukala lekurik?,
iraungipen data agortu zaiola?
Seguruenik, halako kontainerretara
hurbildu beharrik ez daukanak,
edo are okerragoa oraindik,
bihotzetik burura doan konexioa
aspaldi iraungi zaionak.

Zure begiradak ere
*free self service* une horretan
saihestu egiten du kontainerra?

# BLACK & WHITE
# BUT REALLY REDS

The hillsides ring with “Free the People”
or can I hear the echo from the days of 39?
With trenches full of poets
The ragged army fixin’ bayonets to fight the other line
Spanish songs in Andalucia

*Spanish Bombs*

Salaria eta Pat maiteminez lotuak
Espainiako eguzkipean
inguruan bonbak zartatzen ziren
37ko egun ikaragarri haietan

Salaria Kea, ikatza bezain beltza
USAko esklabotza makilatuan hazia,
Pat O’Reilly, esnea bezain zuria
Eireko miseria umeletik matxinatua

black & white... but really reds

Guthrie edo Seeger-en baladaren batean bezala
borrokan zein amodioan batera,
gerra-fronteko gauak argitzen zituen sua
zabaltzen zen euren begietan, euren ezpainetan

Salaria eta Pat, Pat eta Salaria
fallen in love tiro eta leherketen artean,
lurralde askean erabat maiteminduta
orduko Mediterraneo eder hari begira
laranja eta bolbora zaporeko honeymoon batean

Dantzatu egin al zenuten gerritik estu-estu
Paul Robeson-ek, beltz libre eta internazionalista,
Errepublikako ospitaletan abesten zuenetan?
Bonbardaketak iragartzen zituzten sirenen
tarteetan?
Ardo freskoaren zaporea zuten zuen musuek?

black & white faxismoaren kontrako lubakietan
black & white zeharo maiteminduta

black & white... but really reds

# MINAREN PLAZERA

muturreko gogor pare bat jo ondoren
atzera bota eta indarrez oratu dio samatik
atzamar sendoak eztarrian iltzatu nahi balizkio
bezala

oihu mutu eta luzea irten da haren ahotik

gizonaren beste eskua gonapetik sartu
eta kuleroak bilatu dizkio,
munstroaren hatsa eta usaina zabaldu dira
auto barruan, gas hilgarria bezala,
orduan, kuleroen elastikoa apurtzeaz batera,
atzamar lakarrak igarri ditu aluaren ezpainetan,
kristal zorrotz puskatuen antzera,
datorren labankadaren berri emanez

hiru bulkada behar izan ditu munstroak zakila
sartzeko,
hiru bulkada eta hamar bat emankada gogor
mingarri
atzetik, piztiek egingo balute bezala...

hori guztia agertzen duen telebistatik metro pare batera
gizon baten zakilburutik hazi parrastada jausi da sofara
eta plazerak eragindako orroaren ostean malko batzuk,
negar isil eta luzea bihurtuko diren malkoak

bera ere piztia dela salatuko dutenak

# POETAK ETA BANDERAK

My pen is a weapon
Peadar O'Donnell

Mahmud Darwish poetaren hileta argazkiari begira nago.
Hilkutxaren gainean bandera palestinarra ipinita daroa
eta dozenaka esku hura ukitu nahian dabiltza:

*Hil ezina zara, Darwish, hil ezina gure bihotzetan!*

Ez dakit zeinek esan zuen
banderak poeten hilkutxen gainean jartzeko direla,
Herriaren poeta hilak janzteko,
Herri osoaren besarkada, laztana,
maitasuna adierazteko direla.
Eta nik ere halaxe uste dut:
banderak oihal margotu hutsak dira
ez badaukate herri oso bat atzean,
borroka duina alboan.

Argazkiari begira nago, begiak bahituta,
eta photoshoparen beharrik gabe esan liteke
Mahmud Darwish poetaren hilkutxa hegan doala
laztandu nahi duten eskuen itsaso horren gainetik.

Eta begiratu horretan zera etorri zait gogora:
badira beharrezkoak diren banderak
eta are gehiago
badira Herriaren bandera merezi duten poetak,
poesia arma ikaragarria izan daitekeela
erakutsi duten poetak.

# LAZUNEN POZA

korronteek ekarritako dortoka ilun bat
edo portuko ur koipetsuetan katea apurtu eta
itsasadarrean gora errari doan buia izan liteke,
baita portutik uretara jausitako fardel bat ere,
edo Guggenheimek itsasadarrean jarritako artelan
bat,
modernoa, nonbait, edo postmodernoa, nahi
baduzue;
ur gainean dagoen jostailua ere izan litekeela
pentsa dezake jendeak, barandatik begira

argazki kamerak zein telefono mugikorretakoak
di-da batean jarriko lirateke lanean

salbamendurako zodiaka hurbiltzean
lazun saldo bat ikusiko dute haren inguruan,
saltoka eta itzulinguruka, marrazo txikiak bezala,
eta kako luze batez ontzira gerturatzean
ninirik gabeko begizuloak topatuko dituzte,
musu desitxuratua, ezpainak eta mihia janda

giza gorpu beratua
lazunen bazka

handik bost minutura, zodiaka oraindik desagertu barik,
surf taula baten gainean marka ospetsu baten iragarkiak
argazki kamera guztiak bereganatu ditu, ezin agudoago

lazunen poztasun berberaz

# VOYEUR

Urrundik ikusten zenuen zelan ibiltzen ziren
olgetan,
txatartegietan metatzen ziren auto hondatuen
artean,
F1eko gidari trebeak edo banku-lapurrak ihesean
bezala,
edo itsasadarreko bazterretan pirata ausarten
antzera
betiko atrakatutako itsasontzi abandonatu eta
ugertuetan

urrundik ikusten zenuen, urte batzuk geroago,
axolagabe
gauaren iluntasunez hormetan salatzen zuen spraya,
speedak eragindako matrailen abiadura, garitoetan
pogoa,
puten barreak eta marinelen berba zailak topa
egitean,
alkoholak zekarren adurra eta komunetako graffitiak

urrundik, beti, desorduetan urgentziazko batzarrak,

ijitoen txaloak, trenbideen ondoko begirada zoroak,
lokal zahar okupatuetan kartelak eta
anplifikadoreak,
ordu gutxiko eremu txiki baina libreak zehazten
zituen
kontainerretako sua, sexuaren izerdia eta fanzine
merkeak

dena urrundik ikusi duzu, dena hotz, aseptiko,
antzu,
konturatu orduko bizitzak tren isilak lez alde egin
dizu,
ez ekaitzik, ez sargoririk, ez negurik, ezta udarik
ere,
damututa ere, dagoeneko ez daukazu atzera
bueltarik,
eta begiradan bertan ondo markatuta geratu zaizu

bizitza osoan izan zaren voyeur hori

# SATURRARAN

udazkeneko arratsaldeetan
hondartzan ibiltzea maite du
ortozik eta bakarrik
ur bazterretik gertu
olatu apartsuak bere oinetan
zelan hiltzen diren gozatuz

haizearen hotsa nahastu egiten da
inguruan dabiltzan kaioen karrankekin
eta remix horretatik bestelakoa entzun uste du:
ziega haietatik ateratako umeen negarra

negarra eta batez ere
ume haien hil aurretiko isilunea

# 2

# SPRAY

astindu egizu spray hori, astindu
eta ekarri poema horiek kale hustu hauetara
raparen erritmoaz, punkaren amorruaz
edota rumbak ekartzen duen swing gozoaz

astindu egizu spray hori eta idatzi
haiku eder eta lehergarriak kantoietako hormetan
olatuen moduko lerro luze-luzeak bankuko
kristaletan
borobil itxurakoak langabezi bulegoko leihoetan
tren, metro edota bus horien gaineko iragarkietan,
labankada, tiro zein musuen antzerako poemak

astindu egizu spray hori eta idatzi kaleotan
preso batek ziegako horman idatziko lukeen bezain
libre,
edozein instituzioren subentzio eta baimen barik,
ez Heineken ez FNAC ez Arantzazu ez Coca-Cola,
unibertsitateetan lizuntzen diren
literatur irakasleen babes beharrik gabe,

kanonei begira fikzioa eta ez-fikzioa eztabaida
antzuetan
masturbatzen diren kritikarien oniritzi behar barik

astindu egizu spray hori eta idatzi
inoiz abandonatu behar izan ez genituen kale
hauetan,
kultura cool-ture edota cold-ture bilakatu den
egunotan,
izeberg erraldoi eta dotore bihurtu diguten hiri
honetan,
quieres actuar en el FNAC?
quieres colgar tus cuadros en el mcdonalds?
quieres leer tus poemas en la sala multiusos de la
BBK?
bosteko horiek amua gordetzen dute ezkutuan

astindu spray hori eta poema liburu bihurtu hiri
osoa
black baudelaire irratikasetean hil ezazu aita,
idatzi behar ez dena idatz ezazu
bazooka baten erritmopean
eta alde egizu, MTVtik at kantan lez, kultura
otzanetik,

mass media erraldoiak inoiz larrutuko ez dituen
eredutik,
Boterea laztantzen duen zirkulu sasi intelektualetik

ez al duzu oraindik ikusten
stablishment otsoak Bambiz mozorrotzen direla
7 euroko billeteak baino
faltsuagoak diren kultur partyetan
euren soldata ederra errazten dieten medioentzat?
matxinoak baztertu eta otzanak goraipatuak direla?
jostailu apaingarri estetiko hutsak saritzen dituztela
kultura makillatuaren garaiotan?

astindu egizu spray hori eta idatzi
kale hustuotan, gau honetan
munduaren azken gaua balitz bezala,
ez duzu hotz ikaragarri hau igartzen?
basamortu honetako gauak inoizko hotzenak dira

# DALIREN MARGOLANEN AURREAN

Garcia Lorca is dead & gone
Bullet holes on the cemetery wall
The black cars of the guardia civil
*Spanish Bombs*

Ezin dut ukatu Daliren lan batzuek liluratu egiten nautela
tripi erdia eta 11 zerbeza hartuta banengo bezala.
Irudiek dantza egiten didate burmuineko bazterretan
eta halako plazer zoro bat jabetzen da nitaz.
Ezin dut ukatu, gezurra esango nuke bestela, lagunok.

Baina dantza zoragarri horren musika gelditu egiten da
Garcia Lorcaren aurpegi atsegina gogoratzean,
Garcia Lorcaren begirada horretan
beldur ikaragarria imajinatzean,
fusilen ahoak aurrez aurre ikusiko zituenean:

burdinaren hotza, hiltzaileen barreak, tiroen sua.

Inoiz izandako uda sargori, krudel, odoltsuenean,
T.S. Eliotek neutraltasun orria sinatu zuen udan,
W.H. Audenek fronte antifaxistara eramango zuen
motxila prestatu zuen uda hartan,
Francoren aldeko *blueshirt* irlandarrentzat
ereserkia idatzi zuen W.B. Yeatsek.

Bai, Daliren margolanen aurrean
Garcia Lorcarekin akordatzen naiz,
ezin diot Arteari bihotz barik begiratu,
kultur komisarioak begiratuko lukeen hoztasunez,
Garcia Lorcaren ipurtzuloan sartu zuten
pistolaren ahoa bezain hotz.

Baina benetako begiak ez ote daude bihotzean?

# DANBADA

bizarra egitean danbada itzela aditu dut kale
aldetik
eta, zer izan den nondik etorri den ez badakit ere,
arnasestuaz eskuak pausatu ditut konketan,
aparrez zikindutako labana txorrota azpira jausi
zaidala

flash antzeko batek aurpegia ezabatu dit ispilutik
eta, gauez halako beste danbada baten ondorioz,
betiko joan zitzaigun lagunaren begirada agertu zait
gazte, irri apala, zigarro bat ezpainetan

segundo batzuk pasa ostean haren irudia deuseztatu
eta, diapositiba pase baten aurrean banengo bezala,
beste begirada batzuk hasi dira agertzen,
bestelako zoritxarrek eragindako heriotzaren
segadak
albotik lapurtu zizkidan lagunenak,
eta, haize leuna lez, ispilutik berriro desagertzen...

telefono hots batek denak lausoarazi ditu

neure begitartea ispiluan berriro agertu arte:
hor daude nire zimurrak, nire betzuloak, zain
ubelak,
ile urdinak, soiluneak eta nire begirada...
lagun horiek guztiak hil eta hogei urte zaharragoa

oroitzapen hutsa besterik ez badira ere
betirako gazte gorde dituen nire begirada...
bihotzeko nire begirada

# ZAZPI URTEKO AITA

Un gélido silencio en la Diagonal
anuncia la llegada del frente nacional,
Barcelona ciudad abierta
ya no tiene quien la defienda...

*Viva Durruti*

Kanta horrek zuri-beltzeko argazki bilduma batera narama
eta orrialdeak ibiltzen ditut astiro esku artean,
kea, beldurra, samina... gerra giroa islatzen da haietan,
eta jende mordoa agertzen den batean gelditzen naiz begira.
Gure aita, orduko zazpi urteko ume bat, ezagutu uste dut
Areatzaraino ekarritako arrain karga banaketaren aurrean.

Argazkiak dakarren une haren ostean, agian, sirenotsak,

hirian bonbardaketak iragartzen zituzten garrasi luzeak,
eta, izuak jota, nora ezean sakabanatuko zen jende artetik
aita, beldurrez, arineketan irudikatzen dut aterpe bila
leherketetatik ahalik eta babestuen egoteko,
zerutik, euria barik, oinazea zetorren egun haietan.

Robert Caparen argazkiak dira Bilbon 37ko udaberrikoak,
Artxandako frontean erresistentzia oro jausi baino lehen.
Udaberri hura amaitu aurretik negu eternala berriro,
hiria irekia izendatu zuten*, ciudad abierta,* defentsagabea.
eta zazpi urteko gure aita kale desolatu haietara begira
ekain odoltsu hartan isiltasuna hautsiko zuten otsoen zain.

Kantaren amaieran begiradak argazkitik alde egiten dit,

aitaren ume begi haiei darien etsipen gordin eta isiletik,
gure seme-alabak olgetan dauden txokora joateko.
Euren ahotsak, barreak eta algarak eta entzuten ditut
bihotzean sirenotsak ari zaizkidan bitartean.

# PANTERA EMEA (REVISITED)

pantera emeak ez du musurik ematen,
haginka eta miazka laztanduko zaitu
hasperen eta marru isilez,
ez dizu eztarri ondoko zaina ebakiko,
belarri ondora zeozer xuxurlatu
eta haren ezpainak igarriko dituzu saman,
baita haren usaina, haren adatsen ukitua ere,
orduan K.O. utziko zaitu, babesik gabe,
baina zertarako babesa, diotsozu zeure buruari,
gainean daukazu miazka eta haginka
eta horixe da nahi zenuen guztia

# TONGO

mahai gainean zerbeza lata bat eta musika
aldizkaria,
biak zabalik, artelan postmoderno baten antzera,

eta zerbeza ezpainetara hurbiltzean,
aldizkarira ihes egin dit begiradak, nahi barik,
azken urteotan errepikatzen den argazki batera

inoiz aretoak bete zituen musika taldea
berriro elkartua

ospea eta dirua ezagutu ondoren
gatxa izan behar da
arrakasta aurretiko egunerokotasunera itzultzea,
osperik zein kolorerik gabeko egunetara,
etxeko atean jo, zabaldu eta,
groupie sutsua izan beharrean,
noizbehinkako postari grisa topatzera,
beste barik,

kontu korrontea, ura basamortuan bezala,

zelan urritzen den ikusten ohitzera,
zeure autografoak, argazkiak, portadak
iragan eder baten bazka izatera

inoiz aretoak bete zituen musika taldea
kamerari begira poseak antzezten,
zimurrak, ile urdinak eta soilguneak nagusi
armairuko uniforme erreskatatuekin batera,
eta txarrena
begirada horiek ez dutela
inoiz izan zuten sua...

zerbeza latatik zurrutada jo eta berehala
komunetik bota behar izan dut,
bart zabaldutakoa zen,
ez aparrik ez gasik ez zaporerik ere,
aldizkariko musika iruzur horien antzekoa,
indar guztia galduta
tongo on stage
tongo lata barruan

aldizkaria eta lata zakarrontzira bota ditut
mirariak doazen plastikozko zeru horretara

eta hozkailura noa ondoren
zerbeza hotz baten bila

# FACTOTUM SONG

Bildu egiten ditut begiak *Slow day* entzutean,
Kristin Asbjørnsen ederraren ahots urratu baina
gozoak
*Factotum* filmerako Bukowskiren poema hori
abesten duela.

L.A.ko idazlea bezala beste “madarikatu” asko,
literatura stablishment, aldizkari eta foro
ofizialetatik
urtetan eta urtetan baztertuak, ezabatuak izan
ondoren,
etengabe oroituak izan dira filmetan, abestietan
zein hainbat alkoholzulotako ate gaineko neoizko
izenetan.

Ez diete esker on makalik eman.

Bildu egiten ditut begiak *Slow day* entzutean,
eta Bukowski zaharra irudikatzen dut ene gogoan,
Rhin aldeko botila bat ardo zuri eta idazmakina
ondoan,

sigi-saga gorantz doan zigarroaren ke artetik
Kristin Asbjørnsen ederrari begiratzen diola,
honen ezpainetatik poema hura zelan datorren
berriro
suzko laztan luze baten kadentziaz
zaldiak trostan baina kamera motelean baletoz
bezala

*it's just a slowwww day moving into a slowwww*
*night...*

hau ikustea merezi zian, diost,
eta zurrutada mantso batez hustu du basoa.

# MISIL BATEN ESPEROAN

ahalik eta goren eraiki zituzten katedralak
ahalik eta gertuen zerutik,
balizko jaungoikoaren hatsaren bila bezala,
baina arkitektura arrazoi guztien gainetik
boterea benetan zeinek zeukan
erakusteko modurik ukaezinena ei zen

eta hiri honetako katedraletik alde egiten dit
begiradak
zerua ukitu nahi duten azken eraikinetara
BBVA, Isozaki dorreak, Iberdrola...
Botereak bere presentzia aldarrikatzen du lotsarik
gabe,
hiria dotoretzen duten aitzakiaz,
baina benetan zeinek agintzen duen ezin argiago
utziz

ez duzu ikasketa handirik ez sen berezirik behar
beltxarga harro eta ezin handiago horien
mozorropean

hego ilunak eta atzapar zorrotzak dituen saia
ikusteko,
mendeetan behar izandako makillaje guztiak
erabilita ere,
sasimodernitateaz jantzitako Boterearen saia
ezagutzeko

poesia, mailua izan daitekeela onartuta,
lehergailu erabatekoa ere izan liteke,
hala nola, ahalik eta etorkizunik humanoena
erraztuko lukeen misil eder bat

# JIRAFA TIROKATUA

pubeko jabeak mesede egiten diola esan digu,
bere ohiko tximino harro ahotsaz,
Kolonbia epeletik etorritako halako neska batek
putetxe batean amaituko zuela bestela,
beraz, hobe bere negozioan, kale gorrian baino

ondoren, ron botilen alboan daukan argazkiari heldu
eta begirada distiratsuaz erakutsi digu

hauxe da, diosku, Fanny, 27 urte

hortxe dago Fanny, tximinoaren besoen artean,
honek behartutako “uniformea” jantzita:
errape ederrak tenkatzen dituen top horia,
short urdinkara eta takoi luzeko zapatak

bazterrotan, aizue, benetako mesedea egin diot,
diosku, kolonizatzailearen irribarre kristauaz,
besterik egiten ez dakitelako

denok dakigu soldata miserablea ordaintzen diola,

eta, itxi aurreko ordu txikietan, pattarrak harrotuta,
harroxko aitortzen du larrua jotzen diola
nahi adina aldiz atzeko biltegian

barra gainean utzitako argazkiari berriro
erreparatuta
Afrikako oihan ederretara joan zait gogoa,
halako beste irudi bat sortu da nire begien aurrean:
jirafa tirokatua ehiztari zuriaren bota azpian

# KARABANA

Kostaldeko errepide ondoko zuhaitzen artean
topatu zuen
dibortziatu ostean merke saldu behar izan zuen
karabana.
Presaka bazebilen ere, kotxea bazter batean gelditu
eta zigarro bat isiotu zuen hari begira.
Oraindik han zeuzkan bidaia ezberdinetako pegatak
atzealdeko leihatila luzangaren inguruan
eta akordura ekarri zizkioten une eta leku ederrak,
porrotaren aurretik gozatutakoak,
eguneroko liskar eta irainekin hasi baino
lehenagokoak.

Zigarroa amatatu eta kotxea martxan jartzean
oroitzapen gozo haiekin geratzea erabaki zuen,
karabanak iraganeko zoriontasun habia izaten segi
zezan.
Baina, berriro ere, patuak tu egin zion aurpegira.
Karabanatik emakume katxarro bat irten eta,
niki estuaren gainetik titiak laztantzen zituela,
irribarre batez kotxera hurreratu eta

bere ezpainetatik gertu-gertura makurtu zen: “30 euros servicio completo, guapo!”.

# URREA ETA UGERRA

Abrako eskuma aldean, itsasbazterretik gertu,
lerratu egiten dira jauntxoen txaletak eta jauregiak,
eta eguzkiak, itsasoaz bestaldean gorde aurretik,
postaletarako argazki bihurtzen ditu paraje horiek,
pasealeku dotoreak euri gabeko asteburuetan,
jendeak miresten omen dituen arkitektura dotoreak

baina edertasun horrek giza zimendua dauka
oinarri,
eta eragin zituen gosea, miseria eta heriotzak
ez dira turismo bulegoko liburuxketan azaltzen,
badirudi ez garela oroitzen
txalet-jauregi horiek zelan eraiki ziren,
ez dakigula edertasun horrek behar izan zituela
meatzetako heriotza ilunak
labe garaietako izerdi beltzak
auzo langileen amaraunak
haurtzarorik gabeko ume kedarrez beteak
biriki eta bihotz gazte ugertuak...

Bertolt Brechtek idatzitako poema hura,

“Langile baten galderak liburu baten aurrean”,
behin eta berriro etorri zait gogora, mailukadaz

oinazearen gaineko edertasuna

eta euririk gabeko asteburuetan
pasealeku dotore horien aurrean
albumerako argazkiak egiten dituzte
infernu haietako ondorengoek

memoria, antza, zimenduetan ere gelditu zen

# ERLETXETA FUCKTORY

9 prostituta eguzkipean errepide bazterretik ilaran,
lertxun lerdenak errekara bidean bezala,
autopista azpiko tunel ilun eta zikinetik
legearen txakur uniformatuek bota ostean

9 prostituta sex-karabana baten antzerakoan
hurrengo negozio bazter berri batera,
plazer ordainduaren sex businessa
sasi arteko sasiparking baten bila

9 prostituta sex country trip batean,
adatsak eta minigonak ortzadarraren pareko,
ondoko baserriko txakurrak zaunka
eta zelaietako behiak begira dituztela

9 prostituta belar eta asfaltoaren artetik
sujetadore dotore eta tanga estuak agerian,
eta momentuko soinu banda merke baten moduan,
autoen bozinak eta kamioien sirena zalapartatsuak

*Euskadi estimula* dio ondoko karteltzarrak,

haren kanpainaren barruan ote daude?
kresala usaina daukate euren besapeek?
sagardo zaporea euren hankartean?

Erletxeta Fucktory (Sex in the Basque Country) halakoa izan ote zen Arantzazuko aparizioa? hainbatek marketing izugarria iritziko zion kontuari takoi luzeen gainean zebilen giza lurrikara ikusi barik

# KANTU ZAHARREN SEGADA

Voll Damm honen erdia edan ostean
zigarrotxo bat isiotu eta,
barra atzeko botilen artera doan ke urdinari begira,
ohartu barik hausnartzen hasi naiz
zelan gerturatzen garen oroitzapenetara,
zelan argazkiak eskuratzen ditugun noizean behin
akordu horiek gure bizitzan presente segitzeko.

Ez dago txarto, pentsatu dut bigarren zerbeza
ahoratuz,
baina badira iraganari heltzeko bestelako bideak,
bizi izandako emozio-parajeetara eramaten
gaituztenak,
hala nola gure memoriaren dialean
ezkutuan dabiltzan doinuak, melodiak, abestiak...

Eta horregatik sartu naiz taberna honetara:
Ulises itsaslamiek nola, halaxe erakarri nau
bat-batean taberna honen barrura,
bihotza iraganean olgetan hasi zaidala,
bafleetatik zetorren kantu zahar eta ezagun horrek.

Begiak bildu, zigarroa ezpainetaratu eta,
abestiak zirauen bitartean,
gozatu egin dut bat-bateko plazer hori,
edozein argazkik ekarriko lidakeena
baino indartsuagoa, zoragarriagoa...

Eta eskertu egiten dut jukebox propio hori,
dardara batean jar nazakeen jukebox horren lilura,
memoriaren eremu gero eta ugertuagoetan
halako segada epel eta gozoak eragiten dituena,
bizitzaren soinu banda apal
baina ikaragarria osatzen didana.

# JOE STRUMMER

Emancipate yourselves
from mental slavery
*Redemption Song*

Etorkizuna idatzi barik dagoela dio Joe
Strummerrek
mikrofonoaren atzean telekasterra besarkatuz,
eta Woody Guthriek gitarran idatzita zeukan bezala,
*This Machine Kills Fascists,*
musikaren indarra aldarrikatzen du,
Pantera Beltz berrien rap eta hip-hopa
Boterea borrokatzeko punk-rocka
baztertuen kaleetan dabilen Dub Poetry lehergarri
hori...

Joe Strummer izerditan, begiak bilduta,
Garcia Lorcari galdezka non ote dauden
gerra zibileko lubakietan bandera gorriaz jantzirik
hil ziren poeta internazionalistak,
*Spanish Bombs* eder haren erritmopean

Joe Strummer, irribarretsu baina sutan,
ghettoak matxina daitezen deika,
*rebels calling! rebels calling! know your rights!*
bafleek eztanda egiten duten bitartean,
This Is Radio Clash, Intxorta 37 Irratia

Joe Strummer, malkotan, telebistari begira
*Rock The Casbah* idatzita daramaten megabonbek
Ekialdeko hiri urrunetan triskantza ikaragarria
gupida barik zelan eragiten duten,
mass media nagusien prime time horren bazkarako,
Death is a Star

Joe Strummer, Public Enemy no.1,
matxinadarako poemak eta makien swing hori,
arrakasta errazaren zirkura joateko
eskatzen diote kritikariek etengabe,
borrokaren frontline horri bazter emateko
multinazionalen kaiolan jaguar distiratsu bihurturik

Baina Joek, sasipeko irratien uhinetatik
aldarri egiten du behin eta berriro
etorkizuna idatzi barik dagoela

# ZENBAKIAK ETA HIZKIAK

They call it the law,
we call it apartheid internment
conscription partition and silence,
it’s a law that they made to keep you and me
where they think we belong...

*No Time For Love*

Begi kolpe batez
zerrenda hotz eta luzea egunkarian,
RJL 35
KEL 28
MMA 42
JSP 29...
berriaren izenburua irakurri aurretik
ariketa zoro baten dantzan hasi zait burmuina,
SAG 24
POD 51
JED 29...
azken labekadaren ordenagailu berrien markak
izan litezke
JUA 28

FJA 47
IME 33...
edo, zergatik ez, irratian topa ditzakegun emisorak
HER 39
SAF 41
TOE 37...
mp3, jpg, avi edota azken teknologiak emandako
antzeko berrikuntzak direlakoan
izenburura abiatu dira ene begiok

FMO, 33 urteko gizonezkoa,
urkatuta agertu da ziegan, Langraizko espetxean,
bortxatua eta jipoitua ere
(eta umiliatua, gehitzen dut nik, behar ez bada ere)
izan zela hainbatetan salatu zuen berak.

Preso politikoa ala soziala zen?, galdetu du batek.
Eta ze axola du horrek?, erantzun dio besteak,
sokaren bilurrak besarkada erabatekoaz
etengabeko oinazea amaitzen dionean.

Hizkiak eta zenbakiak, horixe zerrenda hotz eta
luzea,
ez giza izenik, eta are gutxiago giza duintasunik...

Hilkutxan ere 3 letra eta 2 zenbaki besterik ez da izango?

Izenburuari begira begiok bildu
eta amorruak segida eman dio zerrendari:
AK 47

# BELUSEZKO SUGEA

Rock Rebel Fashion
holaxe idatzita dauka nikiaren aurrealdean
iragarki batean agertu den gazte batek,
eta txiklea mastekatzen duen bitartean
Sid Viciousek erabili ohi zuen nazka keinu
artifizialaz
ez isiltzeko esan dizu telebistaren pantailatik,
esateko daukazun gauza mordoa
lau haizetara zabaltzeko aukera ematen dizula
marka ospetsu horrek,
hala nola, zu zeu benetan izateko aukera paregabea.
Baina, lagunok, iruzurra belusezko suge ederra da,
kokotetik zulatu eta burmuina astiro xurgatuko
dizuna.

Giza manikiak izen handiko markek jantzita,
non Che Guevararen irudia, haren jokabidea
ezabatuta,
Mickey Mouserenarekin pareka dezaketen
(a!, pop artea zoragarrrria zara...)
eta Bob Marley Marilyn Monroerekin

(biei gogotik emanda, aurretik eta atzetik)
eta Lenin, sobietei berbetan mitin sutsu hartan,
oihuka dabiltzan tarzan birekin haren alboetan,
edota Malcom X bongoak jotzen Disneylanden...

Halako batean, basque fashion izenpeko amarruaz,
lasai asko jarriko digute Argala edo Zumalakarregi
Madonna erotiko zerutiar baten bizkartzain modura.

Baina *be cool*, lagunok, *be cool*,
pop art ondo koloretsua, su itzaliaren *cold-ture*,
Botereak nahi bezala, iraultza sodomizatua,
*be cool*, lagunok, *be cool-ture*, *be happy*
*don't worry* ezertaz eta *be happy*.
Lau egunetarako munduratu ei gara
eta pastel erraldoi honetatik striper bat
agertuko zaizula diotsu belusezko suge eder horrek.

Beraz, musukatu egingo duzu sugearen ahoa?

# MENDE OSO BAT ATZERA

Zuri-beltzeko paisaia lausotua agertzen da
aurrean daukadan argazki handitu honetan,
mende oso bat atzera naraman irudi zaharra

lausotuak mendi malkartsu horretako txabolak,
txapazko horma lotu gabeak eta egur makurrak
orduko giza miseria hura betikotu zigun irudi
honetan

lausotuak argazkiko umeen begiradak ere
lupetza eta zarama artean ortozik eta olgetan
batzuk,
argazki kamerari beldurrez begira geldi-geldi
besteak

txakur pare bat eta asto gainkargatu bat igar
daitezke,
txatar metak, putzuak eta arropa soka batzuetan
zabalduta
zeru goibelean ikusten ez den eguzki baten
beroaren zain

Ameriketako favelak, dio atzean daukadan gizonak,
argazki handituaren behean idatzia irakurri barik
Chabolismo en Bilbao

memoria ere lausotua daukagu, hil hurren,
eta gure ahanzturaren miseria nagusi ibiltzen da
dena-ondo-dena-dotore hiriotatik

# OINAZEA

kristala hormaren kontra txikituko litzatekeen
moduan
halaxe apurtu dira burdin hesira jaurtitako
loreontziak,
eta horren ostean garrasiak, gero eta ozenagoak,
elefante zahar hil hurren baten orroen antzekoak

gizon bat belauniko jarri da hesiaren atzealdean,
bere eskuak lorontzi puskatuen artetik gelditu
ezinik,
eta adurra darien ezpainetatik garrasika hasi da
berriro

film bateko berba batzuk etorri zaizkit orduan
gogora:
ez dakit oinaze ikaragarria dutelako zoro ote dauden
ala zoro daudelako oinaze ikaragarria duten

belauniko, garrasika eta negarrez segitzen du
bere arimaren ispilu bihurtu diren puska txikituei
begira,

beharbada bihotza holaxe daukalako,
hamaika zatitan birrinduta

# CHERRY STREET

*De Guernica a Nueva York*
*pasando por Berlín* liburuan
Agirre lehendakariak dio
New Yorken Cherry Street
euskaldunen kalea dela:

Gerezien Kalea.

Patu barregarria, edo mingarria, euskaldunona,
belaunaldiz belaunaldi gerezien zain
gereziak noiz helduko zain
noiz amaituko negu eternal hau
hain desiratua dugun udaberri hori gozatzeko.

Baina badaiteke udaberririk gurean?

# 3

# URBANO LUGRIS GOGOAN (O MAR, O MAR!)

Galiziako itsasbazter hauetatik
zerua garbi dagoenean
Irlandako zelai beti berdeak ikus ditzaket,
dio Ulyses Fingal-ek

Eta lainoa dagoenean?

Lainoa dagoenean
begiak bildu besterik ez dut egin behar...

# NON LURPERATU BAINO, ZELAN HIL

gure gorpuak, gure hilotzak non lurperatu
edota erraustu ondoren non zabaldu
batzuetan hizpide izaten dugu, amets
musikan, literaturan zein afaloste hordituetan

eta leku zerrenda luzeak aipatzen ditugu

hala nola, erabat zoratuta utzi gintuen pagadia
itsasora begira gozatu genituen belardi malkartsuak
idazle gogoangarri haren hilobitik gertu
mendi tontor haren ondoko amildegian
harrespila edo trikuharri baten erdiko zuloan
lehorretik milia pare batera, olatuen altzoan...

denok nahi omen dugu
halako amaiera erromantiko bat,
baina azken arnasaren osteko minutuetan,
gure larruazalean zehar hotza nagusi dela,
usteltzeko bidean diren haragi kilo batzuk
eta hezur bilduma bat baino ez gara

beraz, aitortzen dut,
haragi-hezurrezko soineko hori
nirea ez den momentu horretan
non lurperatu non erraustu
edo Mugarrako putreen bazkarako
erabiliko ote duten
bost axola didala

benetan ardura didana zera da:
azken arnasaren une ikaragarri horietan
nor izango dudan ondoan,
maite nautenek
maite ditudanek
eskutik heldu, musukatu,
eta laztanduko ote nauten

horrela bada
lasai bilduko ditut begiak,
maite nauten horiek
maite ditudan horiek
betazalen barruko ilunpean inprimatuta
gelditukо zaizkidalako
momentu zoriontsuen argazkiak bezala

eta orduan joango naiz

# MERKATALONTZIEKIN AMETS

alanbre-hesiaren atzetik gizon irakiar bat
lur mortuan belauniko, umiliatua,
erabat itsu utzi duen txano luzea buruan jantzarazia

iluna begien aurrean, are ilunagoa patua,
eta iluntasun horretatik zuzentzen dituen bere
eskuek
semea izan litekeen ume bat babesten dute altzoan,
eta honen aurpegian, malko eta hautsaren artean,
beldurrak desitxuratutako begirada jausia

halako giza lokatz bat egungo G.I. Joe berrien
aurrean

oinaze eta beldurraren begirada sarriegi
errepikatzen da
mundu osoko bazter guztietako argazkietan
noiznahi eta nonahiko gernika berrien irudietan

eta, gura barik, gogoan dantzan dabilzkit

gerra zibileko umeen zuri-beltzezko irudi
ikaragarriak,
panpina altzoan eta maletatxoa eskuan, atzera
begira
atzean izua, atzean familia, atzean laztanak...
nora zihoazen jakin barik
ontziratzen ari ziren bitartean

baina zenbat gernika berri margotu diren
margotzen ari diren gu arduratu barik,
Bagdadeko horma txikituetan
Gazako harresi lotsagabean
nonahiko gerra guneko bazterretan

Seven Seas Spray, Habana eta halakoak
historia datu huts bihurtu ote dira?

hala ere,
kirol portuez gainezka dagoen kostalde honetan,
iragana oroitzeak argitalpenetan besterik
eragiten ez duen kostalde honetan,
merkatalontziek utzitako uberari begira
hainbat bihotz zahar orduko umeen begiradaz
ikaratzen dira oraindik ere

eta amets egiten dutelakoan nago,
ubera berbera horretatik
gernika berri horien umeak dakartzaten
merkatalontziekin amets

# IZOTZA ETA SUA

Hey Jack Kerouac,
you chose your words
from mouths of babes got lost in the wood.
The hip flask slinging madman, steaming cafe flirts,
nights in Chinatown howling at night.

*Hey Jack Kerouac*

demagun Jack Kerouac hizpide zutela udal *igloo* hartan
eta instituzioen diru laguntzaz gauzatzen zela hitzaldia
(hauteskundeak gertu ziren, lagunok)
Beat idazle hark hain maite zituen alkohol barik
tabako barik, *bebop* erritmo barik,
Mardou Fox haren antzeko aingeru eme beltz eder barik...

demagun zzzuzzzen antolatuta zegoela guztia,
Jack Kerouacen lan eta bidaiez jardun nahi zutela,
New Yorketik San Franciscora merkantzia-trenez

eta San Franciscotik Mexico Cityra alderrai
bueltaka,
pasioaren eta zoramenaren atzaparrek ukitu barik,
Viajes El Corte Ingles-ek prestatu izan balu bezala

demagun zubiaz bestaldeko San Franciscora bidean,
egun eta inguru hauetako beste Jack Kerouac bat
zegoela,
amorruaz eta suaz beteriko literatura baten jabea,
zubitik gora igotzen diren kale estu eta ilunei begira
idatzi barik zegoen liburuaren orriak irakurtzen ari
zela,
hiriak berez eskaintzen duen soinu-banda tarteko

demagun, itsurik itsuenak ere ederto ikusiko luke,
izotza eta sua nahastu nahi dituen koktela ezina
dela,
eta literatur *igloo* hartan hotza ikaragarria bazen
ere
Jack Kerouac berri haren begiradapean
sutan zeudela kaleak

# TATUAJEA

tatuatu aurretik jadanik hor zegoela diost,
larruazalaren azpian, momentu egokiaren zain,
eta azkenean Barnako halako zapatu arratsalde
batean
rumba erritmopean eta kosto usainez jaio zen

hori aitortu ostean harro erakutsi dit tatuajea,
ubarroi bat hegan olatuen gainetik,
eta hari begira geratu da une batez, isilik,
gerrian lotuta daukan pintore-buzo zikinaren
gainean
zigarroaren errautsa jausi zaiola ohartu barik

ordutik, bere ubarroiaren itsasoak enbata asko
nozitu ditu
eta enbata horietatik hainbat hondoratze lekuko,
itsasotik urrun zeuden ziegetan porturatuta,

lau urte eta hogeita bi egun,
badakik zenbat sexu galduta?, diost,
eta irribarreak agerian utzi dizkio

nikotinaz zikindutako hagin eskasak,
halakoxea duk bizitza, mareak bezalakoa,
itsasora irten eta zer topatuko jakin barik ibiliko
haiz,

tatuajeak berriro harrapatu dio begirada

ubarroia izan gura nian, dio zigarroa ezpainetan,
olatuen gainetik libre, inolako muga barik,
han eta hemengo kalatxotan etzanda,
baina begira bizitza benetan zer den,
begira zer bihurtu garen...
moila zikineko ahate gatibu eta zaborjaleak

# BILDOTS HARROTUAK

They say immigrants steal the hubcaps
Of the respected gentlemen
They say it would be wine an' roses
If England were for Englishmen again
*Something about England*

badira Boterearen oinetara makurtzen direnak,
Jauntxoen graziarik gabeko grazien aurrean
barre faltsu eta patetikoak antzezten dituztenak,
Poliziaren edozelango kontroletan
bildotsen kortesiaz erantzuten dutenak,
inkisidore berrien eskuak musukatzen dituztenak,
lankideen gainetik eskrupulurik gabe pasatzen
direnak

halako horiek guztiak,
burua hutsik, bihotza harri,
harrotu eta oldartu egiten dira gehienetan
eurek baino maila txikiagoa dutenen kontra,
katu batek sagutxoa akabatzen duen balentria
berberaz

halaxe ikusiko dituzu kalean, tabernetan,
CD piratak saltzen dituen etorkinarekin tratuan,
miseria negoziatzen,
duintasunari popatik ematen,
larruazal beltzeko mutilari
euren giza miseriak ordainarazten

# AMAREN AMETSA

When it’s summer in Siam
and the moon is full of rainbows
when it’s summer in Siam
and we go through many changes

*Summer in Siam*

—Berarekin amets egiten dut —esan zidan ezpainetan irribarre batez.

—Ez dizu tristurarik ematen?

—Tristurarik? —erantzun zuen—,
inondik inora ez. Zergatik?

—Badira urte batzuk hil zela —esan nion—.
Faltan igarriko duzu agian.

—Bai, baina ezkondu ginenean
bezain guapo agertzen zait:
orduko ezpainak eta begirada hura...

—Ondo, ama, baina esnatzean?
zelan zaude esnatzean?
negargurarik izaten duzu?

—Ez. Amets horietan ondoan izaten dut,
autoan gaude, auskalo nora bidean,
zerua urdin eta zabala izaten da,
eta ni ondo-ondoan jartzen natzaio,
badakizu, maitemindu berriak bezala,
laztandu egiten diot ile bihurria
eta saman musukatzen dut luze-luze...

ikaragarri ondo esnatzen naiz.

# AZKEN JAUZIA

Trenaren zarata aditu du urrunean
eta azken hogei urteotan bizi izandakoaz
damu izateko momenturik ez orain,
dagoeneko berandu da, dio bere artean,
trenaren zarata handitzen ari den une honetan,
zaurituta erasoan datorren errinozero bat bezala.

Damurik ez, dio trenbideari begira,
hala ere oroitzapenak metatu egiten zaizkio
trenbidea lausotzen dioten begi urdurietan.

Oroitzapenak zirimola zoro bihurtuak:
bafore ugertuen artetik bizar bako piratak olgetan
kale erdian futbolean ardura barik
uda amaierako piku lapurtuen zapore gozoa
txatarren artetik lehenengo zigarroen ke urdina
lehenengo zurrutaden beroa eta musu inozenteak
itsaso aldetik egunez zetozen kaioei begira
batzuetan,
eta besteetan, gauez, anguleroen kriseilu itzali
ezinei.

Oroitzapenak arrapaladan, tren horren abiadura berberaz,
damurik ez eta zubitik behera salto egiteko une honetan,
zerua eta infernua bizi izan dituen urte luzeen ondoren.

# LITTLE ARRATIA KLUBEAN

Literatura irakaslea harrituta geratu da txokora begira.
Eskatu duen kafesnea eta aldean daramatzan karpetak
bazter iluneko mahai baten gainean utzirik
horman jarritako idazleen argazkiei erreparatu die.

Europako hainbat hiritan ikusitakoa gogoratu zaio:
literaturaren halako aldare gogoangarria, estimatua.
Aurpegi guztiak erabat ezagunak bazaizkio ere
izenez izen irakurri ditu argazki bakoitzaren oinak:
Dylan Thomas, Truman Capote, Carson McCullers,
Ernest Hemingway, Charles Bukowski, Brendan Behan,
John O'Brien, Malcolm Lowry, Jack Kerouac eta gehiago.

Jesarri barik eta kafesnea zurrupadatxoetan edanez,
haien lan esanguratsuenak errepasatu ditu banan-banan
bere buruari azterketa antzeko bat eginez bezala.

Eta amaitu ostean barrara bueltatu eta tabernariari diotso:

—Eskertzekoa da literaturari halako gorazarrea egitea.

Irakurtzea sustatu guran ala?

—Literaturari gorazarrea? Ez lagun, literaturari ez. Alkoholari egiten zioten ohoreagatik daude hor morroi horiek —soraio erantzun dio garbitzen ari den basotik begirada jaso barik.

# ZERUTIK IZUA

euria gogotik ari badu ere
larru iluneko ume bi zerura begira jarri dira,
teilatuek mugatzen duten laino beltzetara,
zaparrada honek bustitzen dizkien eskutxoetatik
oraindik are estuago heldu diote elkarri,
eta horretan gelditu dira
ekialde hurbil baina orain urrun hartatik etorritako
larru zein patu iluneko ume biak

inguruko jendea hara eta hona dabil,
nor bere beharretara, bere zereginetara
eguneroko bizimodu gor eta itsuaz,
ume biek espaloi erdian sortu duten traba saihestuz

umeek zerurantz begira jasotzen dute euriaren
kolpea,
bustitzen ari direla axola gabe,
uholde bihurtu diren lainoen gainetik
helikoptero baten zaratak erabat geldiaraziak

espaloiaz bestaldeko atari batean babestuta

agure batek bere burua ikusten du
ume horien begirada beldurtuetan,
sua eta izua darizkien begi txiki horietan,
eta, atzera biltzen diren filmetan bezala,
umea zeneko garaietara joan zaio bihotza,
zerutik bonbak etengabe jausi
eta inguruan lehertzen ziren egunetara

kalea gurutzatzen ari dela
aspaldian ez bezala hasi zaizkio atzamarrak
dardarka,
poltsikoan mendazko karameluen bila dabiltzan
atzamar zimurtuak

# RAQUEIROS

enbata itzeleko gau beldurgarrietan
zezen-behiei adarretan suzko zuziak jarri
eta itsaslabarren gaineko zelaietatik
xaxatu egiten zituzten garrasika eta joka

hondoratuak ez izateko borrokan
olatu zakarren artean zebiltzan ontziek
porturen bateko argiak ikusi uste zituzten,
infernu ilun hartatik bizirik ateratzeko aukera

argien amarru aldera zuzenduko zen lema,
eta harkaitzen kontra txikituko zen guztia:
gila, kabinak, belak, arraunak, masta...
eta goizean, karga sakabanatua lehorrekoentzat

raqueiros izeneko lapur haiek datozkit gogora
mass mediaren marrazo mozorrotuen aurrean

# DILDO

ni ez naiz poeta sport bat
C. E. Ferreiro

Poesia mailu bat dela esan ziguten,
etorkizunez kargaturiko arma ikaragarria
eta horixe izan beharko litzateke, zalantza barik:

injustiziaren hormatzarrak zulatuko lituzkeena,
ahanzturaren aurrean ispilu lotsabakoa,
oinazearen aurrean laztan luze bat,
eguneroko miseriak, faltsukeriak edo egia
aitorrezinak
agerian utziko lituzkeen erreminta zehatza,
eta zergatik ez,
bihotzera doazen estolderiak libratuko lituzkeena,
buruaren ziega estankoak arrakalatuko lituzkeen
mailua.

Poesia mailu bat dela esan ziguten, idatzizko
lehergailua,

horixe izan beharko litzatekeela zalantzarik ez daukat,
baina bizi garen mendebaldeko
merkatalgune itzel honetan
sarritan pentsatzen dut
masturbazio propiorako
bibradore bihurtu dugula poesia

dildo dildo dildo...

# ZOROA ZORROZAURREN

—Marrazoak sartu dozak! —oihukatu dit Luisitok itsasadarrak eta kanalak bat egiten duten Zorrozaurreko lurmutur honetan.

—Marrazorik etxaok ur hauetan —diotsat.
Kotxea itxi eta berarengana jo dut, zigarroa ezpainetan,
uretan lasai igerian dabiltzan lazunei begira.

—Marrazoak zuazan, hiru, batelak bezain handiak!

—Marrazo bakarrak udaletxean jauzek, eta bankuetan,
marrazo hankabikoak eta irribarre faltsukoak
—diotsat zigarro bat eta sua eskainiz.

—Ordu hauetan agertzen dozak —diost sua hartu ostean,
gertu, sekretu bat balitz bezala, ahotik kea dariola—.

Aurrena zilarrezko putre saldoa izaten dok,
zarataka,
zerua goibeltzen jabiek, galarrenetan bezala;
horren ondoren marrazoak, hagin handiko
marrazoak...

Tabakoaren hats ustela dauka hagin horiztatuen
artean;
ezpainetan adur sikua, betidanik itsatsia balego
bezala;
begiradan, berriz, errealitate aspaldi galduaren
distira.

Isilik geratu gara biok itsasadarrari begira.

Abra aldetik datorren haize leuna gozatzearren
eskumara bueltatu dut aurpegia, begiak apur bat
bilduta,
eta orduan malko pare bat ikusi diot,
marrazo handiak eta zilarrezko putre ikaragarriak
islatzen dituzten bere begi mindu horietatik,
pistolaren ahoaren musu zaratatsua eskertuko
luketen
begi aspaldi hil horietatik.

# ERREKA MAMUEN ANTZERA

badira hiri honen azpitik doazen errekak,
euri tanta, eguzki izpi, haize laztan barik zigortuak,
etxe multzo berriek zein kale eta etorbideen
luzapenek
estolderia bihurtu zituztenak,
ez haltzik ez sasirik ez zozorik ez igelik
ilunpe eternalean dauden erreka mamu horietan
barrena

no man’s land
no man’s water
no man’s sky

eta gure begiradetatik ezabatuak badira ere
egon badaude

horrelakoak dira zainak
horrelakoak ere egiak

# GAUZAK ABANDONATZEA

—Oroitzapenen biltegiak gainezka egiten zidak —dio
eta halako puzzle desordenatu batekin parekatzen du.

—Zenbat eta gehiago metatu
gero eta ikasiago, ezta? —galdetu diot.

—Ikastea ez duk gehitzea —diost—,
ikastea gauzak abandonatzea duk,
beste barik, abandonatzen jakitea.

# MAGGIE BERRIRO

atzetik hurbildu natzaio, astiro,
ene eskuok bere gerrian,
eta sujetadorea askatzeko eskatu dit,
atzera begiratu barik

eskuok abandonatu dituzte bere mokorrak
eta gora egin dute, astiro,
bizkar biluzian gora,
urduri, aurreneko aldia balitz bezala,
edo azken aldia, nork daki

eta sujetadorea askatu diot,
tiranteak jausi dira besoetara,
begiak bildu ditut, itsu,
adatsetara joan zaizkio ene ezpainak
Klimten koadroetan bezala,
eta ikara batean abiatu dira eskuok,
astiro, haren besapeetatik bularretara,
haragizko duna eder horien gainean
loratzen diren marrubi gogor ilunetara

basamortu honetan bera da ene oasia

ikara batean sentitzen ditut atzamarrok
ikara batean ene arnasa bere adatsetan,
sumendia lehertzeko puntuan dago
eta aspaldian izan nintzen nerabe haren moduan
urduri nago berriz ere

# THE PARTING GLASS

Kai ondoko aldapan gora joan ginen, langarrak laztan,
eta pubera sartu aurretik atzera egin zidan begiradak,
urrun ikusi nuen Toraigh irla bisitatu berria, oso urrun,
itsasoa eta zeruaren arteko mugan balea baten antzera.
Olatuak gero eta zakarrago zebiltzan olgetan,
bazirudien gupida barik irentsiko zutela lur zati hura,
edo itsasoak azken kolpe batez ekarriko zuela betirako
lehorra hasten zeneko kanposantu abandonatura.

Pub zaharrean, ohiturak lege, edan eta abestu egin genuen,
sutondotik zohikatz errearen usaina giroan itsatsia zela,
barreak eta isiluneak tartekatu egiten ziren doinuetan,

poesia debekatua, iragan ukatua, borrokaren akorduak,
amodioak, derrotak, tristurak, oinazeak eta garaipenak,
haiek guztiak batu zituzten musika koktel hartan,
gaua ahanzturaren kontrako botika ederra bihurtuz.

Mendetako enbaten erdian Toraigheko itsasargia bezala,
halaxe etorri ziren euren ahotsak gau hartan, harro,
belaunaldi guztien bihotzeko apaletan gordetakoaren berri
guk izan genezan eta hurrengoek izan dezaten,
agurraren orduan *The Parting Glass* abesten hasi ginen:

*So fill to me the parting glass*
*good night and joy be with you all*